

## ezagutzen al duzu Donostia?

"Ezagutzen al duzu Donostia?  
Hori da egiten dizugun galdera;  
bazter hontatik eta gaurtik aurrera  
gure txokoak aurkezten saiatuko gera"

(Boulevardeko zenbaki pareak).

Donostiako plaza bakarra zen, bertara biltzen ziren hiritarrak eta soldaduak. Iskanbilak izaten ziren beraien artean, orduan agintariak Plaza Berria (gaur Konstituzio Plaza) eraiki zuten.

JOSU TELLABIDE



Zenbat zita  
egin izan  
ditugu eta  
oraindik ere  
egiten ditugu  
leku honetan,  
Donostiako  
Plaza Zaharra  
hori dela jakin  
gabe!

## Plaza Zaharra

Non dugu Donostiako hiri-erdia, hiriaren bihotza? Askori Konstituzio plaza etorriko zaio burura, baina oker dago. Hiri-erdia, Boulevard-eko tranbien lehen eta orain autobusen erloju famatuaren inguruan dago. Bertan Kale Nagusiko eta San Jeronimo kaleko sarrerak daude, eta harresi barneko Plaza Zaharra zenak hor erakusten dizkigu orain ere bere arkupeak. Betidanik izan da Plaza Zaharra hiriko bilgune nagusia, bertatik ateratzen ziren aipatu bi kaleak, Ingente-kalea (gaur Igentea deitua) eta Putzu-Kalea

## kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua  
testua: AITA DOMINGO MEAGHER

### Ni naiz txit gauza gozoa

*Ni naiz txit gauza gozoa  
eta pozkida osoa.  
Beltza naiz eta zuria,  
iluna eta argia.  
Indarra naiz eta garboa,  
eta izena det ardoa.*

*Noe gizon aditua,  
zedorren pensamentua  
izan zan gauza haundia  
ipintzen mahastia.  
Zu zaitugu ardoaren autorea  
O, zorieko noe!*

*Edari maitagarria,  
tristearen alegria,  
dezu alaitzen begia  
kentzen melankolia.  
Mutua ipintzen kantari  
eta errena dantzari.*

....


Jatorriz irlandarra zen arren, Donostian jaiozako Aita Domingo Meagher-ek (1713-1772) prestatu zituen bertso hauek. Jakinduria haundikoa omen zen josulagun hau eta asko idatzi omen zuen erderaz. Baina ospea kanta honek eman dio. Gaiso zegoelarik medikuak ardoa hartzeko kontseilua eman zion eta on egin nonbait.

Euskal Herri osoan zabaldu dira, baina batez ere Donostia inguruan ezagunak eta kantaturak.

## Horiek agian ez dute behar,



eta zuk?



- Euskarazko lehen Hiztegi Entziklopedikoa
- 12.000 euskaldun hitzarturik obra honetan harpidetzaren bitartez
- 8. alea kalean dagoeneko



Obra honi buruz informazio gehiago jaso nahi nuke, bestelako konpromezurik gabe.

Izen abizenak .....

Helbidea .....

Herria ..... P.K. ....

Lanbidea .....

Tel. ....

Moztu eta beheko helbidera bidal ezazu.  
LUR argitaletxea • Usandizaga kalea, 17 • 20.001 - DONOSTIA